

KORONABIRUSA ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

174 positibo berri
8.502 positibo guztira* UCI n EAEn

1.757 hildako EAEn

NAFARROAN

340 positibo berri
11.598 positibo guztira UCI n Nafarroan

*HERNANIN 235 (+6), ASTIGARRAGAN 51 (+0)

«Jendea kontzientziatu nahi dugu, natur ondare oso garrantzitsua baita Urumea»

Atzo, Urumea bailaran gertatzen ari den erabilera masiboaren kezka azalarazi zuten Xabier Lertxundi Hernaniko alkateak, Unai Erroitzenea Ereñotzuko alkateak, eta Inma Lizaso, Gipuzkoako Foru Aldundiko, Mendiak eta Habitata kudeatzeko Zerbitzu teknikariak.

URUMEA IBAIA

Atzo goizean, Fagollagako presa inguruan, Xabier Lertxundi, Unai Erroitzenea eta Inma Lizaso bildu ziren, Urumea ibaiaren bazterrean agertzen den zaborrari buruz jarduteko, eta dagoen «kezka» helarazteko. Aipatu dute, uda guztietan gertatzen dela erabilera hau, eta «beti sortu izan duela kezka». Hala ere, Lertxundik azpimarratu du uda hau berezia izan dela, eta «are eta egoera larriago bat sortu da hemen, Urumea bailara honetan». Hau guztia kontutan izanik, inguru honetan eskumena daukaten erakundeak elkarlanean hasi dira, eta «baloratu nahiko genuke uda hau nolakoa izan dan, eta gizarteratu Urumean egiten den aisialdirako erabilera masibo honek, arazo larriak sortzen dituela». Aipatu dute, jendea «kontzientziarazteko egoera larria dela».

Ere mu honetan, hondakinen sorrera eta kudeaketa izaten da arazo larrietako bat. Hernaniko Udalaren aldetik, Lertxundik aipatu du, hondakinen bilketa indartua dagoela, izan ere, «bi bilketa puntu daude, bat hemen Fagollagakoa, eta bestea Ugaldetxokoa». Bilketa hau, egune-



Hernaniko Udaleko, Ereñotzuko eta Foru Aldundiko ordezkariak batu dira gaur Urumeako erabilera masiboaz salatzeko.

ro egiten da, hala ere, «jende askok ez ditu erabiltzen», eta nahiz eta hondakinak biltzeko puntu hauek egon, «jendeak ez ditu modu egokian erabiltzen, kanpoan uzten dute zaborra, eta noski bilketa hori konplikatu egiten da». Gainera, zabor bilketa hau, egunero egiten da, «balidin eta bere lekuan badago, eta ez bada horrela, ezin da bilketa ondo egin».

Uda honetan gainera, Foru Aldunditik, eta Hernaniko Udaltetik, udaltzaingoaren bitartez kontrola «zorrotz egin da, espedienteak ere ireki dira, eta guk neurriak zorrotz betetzen jarraituko dugu, jendea kontzientziatzeko».

Unai Erroitzeneak azaldu du, ereñotzuarrentzat «natur ondare garrantzitsua dela Urumea», eta Auzo Udalak, ahaleginak egiten ditu, «bailara hau babesteko». Hala ere, Erroitzeneak dio, konturatu direla, Urumea bailara aisirako erabiltzen dela, baina azken urteetan izan duen bilakaerak, «talka» egiten duela Ereñotzuko Auzo Udaleko as-



Hondakin «ugari» biltzen dira Urumea ibaiaren ertzean.

moekin. Izan ere, masifikazioak hainbat arazo ekartzen ditu, «ibilgailuen joan etorriak adibidez, trafiko intentsitatea asko areagotzen da, istripuak ere egon dira. Ibaiaren inguruan, suak pizten dira, eta debekatu dago, azkenean ez gara kontzienteak gaizki itzalitako su batek, zein ondorio izan ditzaken, eta batez ere honelako eremu batean». Horrez gain, txakurrak ere aipatu ditu Erroitzeneak, basa animalien artean eragina daukatela, azpimarratuz. Eta noski, ibai ertzetan uzten den

hondakinek sortzen duten kalteari buruz ere iritzia eman du.

Inma Lizasok azpimarratu du Urumea ibaia, kontserbazio bereziko eremu bat dela, eta gainera «Aiako harriko parke naturalaren zati bat».

Hori horrela, basozainekin bigilantzia areagotu dutela azaldu du, eta gainera jendeari «pedagogia egin zaie, eta egingo zaie, babes leku bat baita Urumea ibaiaren eremu hau. Izan ere, hainbat jardura ezin dira egin, eta jendea kontzientziatu nahi dugu». K

Bigarren eskuko azoka, bihar

HERNANI BIGARREN ESKUKO AZOKA

Bihar hasiko da asteburua eta modu paregabean igarotzeko, bigarren eskuko azoka egongo da Urbieta kalean, eguraldi ona egingo baitu. Mota askotako material, arropa eta objektuak egongo dira kalean, eta bertaratzeko deia luzatu dute.

Enkartelada, gaurkoan ere

HERNANI ENKARTELADA

Enkartelada egingo da gaur arratsaldeko 20:00etan hasita, Gudarien Plazatik abiatuta. Hernaniko preso eta iheslariaren senide eta lagunek deituta.

Online tailerrak, Nagore Legarretak

HERNANI ARGAZKIGINTZA

Ikasturte honetarako, zuzeneko bi online ikastaro jarriko ditu abian Nagore Legarretak. Lehen, tailer ludiko eta praktikoa izango da, bertan argazkiekin esperimentuak egingo diren. Datorren hilabetean emango zaio hasiera ikastaro honi, urriaren 20an, hain zuzen. Eta bigarren tailerra, Lightroom eta Photoshop ikastaroa izango da, «gure irudiak lantzen ikasteko». Honako tailer hau, urriaren 8an hasiko da.

Presoen aldeko bizikleta igoera, bihar

HERNANI ELKARTASUN PEDALKADAK

Bihar, presoen aldeko bizikleta itzuliaren bigarren edizioa antolatu du, Izan Bidea, Ibiltarien sareak. 3,3 kilometroko ibilbide «motza» antolatu dute, eta 7 euro ordaindu beharko dira partaideko. Gainera banaka edo taldeka joan daiteke, «gehienez 4 pertsonako taldea bada». Etaparen amaiera Hernaniko plazan izango da, eta bertaratzeko deia luzatu dute.

MARI FE
ARRANDEGIA
NAGUSIA 36 943 550 489

BRINTZA
AHOIKULARITZA - CONSULTORIA
Lan-Aholkularitza
Fiskala
Aseguruak Inbertsioak
Zerbitzu Juridikoak
www.brintza.com
URBIETA KALEA 15, HERNANI
Tel: 943 33 12 67 Fax: 943 33 08 92

ezkati
ileapaindegia
Ituregi, 4
Hernani
943 55 65 96
Hartu ordue

OINDI
taberna
NAGUSIA, 25
HERNANI
943 557 509

GAUR Gaurko ez da aldaketa handirik espero. Udako giro eguzkitsua espero da edonon. Temperatura maximoak gradu pare bat altuagoak izan daitezke, baina ez du bero handirik egingo, arratsaldean ipar-ekialdeko haizea ibiliko delako. **Min.14° / Max.25°**

BIHAR Bihar tenperaturak gora egiten jarraituko du eta giroa udakoa izango da nonahi. Arratsaldean hegoaldean erdi mailako hodeiak eta goi-hodeiak agertuko dira eta Pirinioetan bero-hodeiak gara daitezke. **Min.16° / Max.26°**

DOBERA
EUSKARA ELKARTEA

LAGUNTZAILEAK

Hernaniko Udala

Astigarragako Udala

Donostia Auzo Udala

GOIZUETAKO UDALA

ARANOKO UDALA

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korroa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) Egunez: **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** Gaez: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**

EUSKAL HERRIKO GOBIERNUA

Gipuzkoako Foru Aldundia

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

Zabalik da Udal Ikastaroetako irakasleentzat izena emateko epea

2020-2021 ikasturtean ikastaroren bat emateko interesa duenak, hilaren 17a baino lehen aurkeztu beharko du proposamena, udaletxean.

GOIZUETA IKASTAROKAK

Ikastarobatzukjada hasiak dira, beste batzuk ordea oraindik azken ukituak ematen. Goizuetan berriz, 2020-2021 ikasturtean

ikastaroren bat emateko interesa duenak, datorren ostegunera arte izanen du aukera proposamena aurkezteko.

Ikastaroak eskaintzeko, bi baldintza bete behar dira,

hala nola, autonomia izatea, eta ikastaroaren deskribapen zehatza aurkezte, «ordutegia, prezioa, iraupena, nori zuzendua...» Hau guztia, udaletxean aurkeztu behar da. **K**

Energia modu eraginkorrean erabiltzen ikasteko tailerra antolatu dute Biterin

Astearteko 14:00ak baino lehen egin beharko da izen ematea; eta edukiera mugatua denez, gehienez 20 lagunek parte hartu ahal izango dute.

HERNANI TAILERRA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Departamentuak, Hernaniko Udalarekin elkarlanean, Energia Argitu programaren baitan, etxetan, enpresetan eta elkartetan energia modu eraginkorrean erabiliz eta erosotasunik galdu gabe energia eta dirua aurrezteko gomendio ezagutzeko

ra emateko tailerra antolatu du. Arratsaldeko 18:00tan izango da, Biterin.

Izena eman behar da, aurretik Tailerreko edukiera mugatua denez, ezinbestekoa da alde aurretik izena ematea. Horretarako, interesa duenak izena eman beharko du asteleheneko eguerdiko 14:00ak baino lehen.

Hainbat bide zehaztu dituzte

inskripzioa egiteko. Lehenengo aukera argitu@gipuzkoa.eus helbidera posta elektronikoa idaztea da. Eta bestea, 628 532 303 telefonora deitzea, asteleheneko ostiralerara, 09:00etatik 17:00etara bitartean. Bestalde, jakinarazi dute informazio osagarria eskuratu nahi duenak nahi haina datu dituela ondorengo webgunean: www.argitu.eus.

Antolatzaileek jakitera eman dute beharrezkoa izango dela ezarritako osasun eta higiene baldintzak betetzea. Beraz, gehienez 20 lagunek parte hartu ahal izango dute tailerrean. **K**



Natali musika taldeko kideak.

Kultur emanaldiak Astarben, asteburuan

Bi kontzertu eta kultur saio bat izango dira asteburu honetan Astarbe sagardotegian. Sarrerak aurretik eskuratu behar dira.

ASTIGARRAGA SAGARKULTUR

Aurtengo SagarKultur dinamikari amaiera emateko, azken ekitaldiak antolatu dituzte, Astarbe Sagardotegian. Orain artekoarekin jarraitzeko, larunbat gauean bi kontzertu izango dira eta igandean beste kultur saio bat egingo dute.

Larunbat gauean sagardote-

gira joatera animatzen denak, menu goxo bat afaldu eta gero musikaz gozatzeko aukera izango du. Anai taldearen kontzertua izango da lehenengo eta ondoren, Natali musika taldea igoko da oholtza gainera. Eta asteburua ondo bukatzeko, igandean Txomin&Txistuman saioa izango da sagardotegian, bazkal ostean.

Emanaldietako sarrera eskuratu nahi duenak webgune honetan izango du erosteko aukera: www.astigarraga.eus. Eta sagardotegiko menua eta kontzertua biak batean biltzen dituen sarrera, 943 55 1527 telefonora deituta eskuratu ahal izango da. **K**

Euskal Herriko historia online ikastaroa, abian

Izen-ematea zabalik egonen da irailaren amaiera arte, Nabarralderen webgunean bertan.

tza munduko profesionalentzat. Eta bestetik, egungo errealitatean interesa duten eta beraien heziketa pertsonal eta kulturean sakondu nahi duten ikerlari eta norbanakoentzat.

URUMEA HISTORIA IKASTAROA

Nabarralde Fundazioak Euskal Herriko Historia online ikastaroaren edizio berri bat martxan jarri du, eta urriaren 8tik abenduaren 17ra bitartean eskainiko da. Ikastaroaren helburua da «Euskal historiaren eta oroimen historikoaren inguruko gogoeta analitikoak sustatzea», eta euskaraz zein gazteleraz egin daiteke.

Ikastaroa batez ere bi multzorentzat dago zuzendua. Batetik, gaian interesa duten edo beraien jarduna garatzeko prestakuntza behar duten irakasle eta hezkun-

Izen ematea zabalik egonen da irailaren amaiera arte

90 orduko ikastaroa da eta interesa duenak, iraila amaitu baino lehen eman dezake izena, Nabarralderen webgunean. Ikastaroaren prezio orokorra 150 euro dira, baina Nabarraldeko sustatzaileak eta Ikastolen Elkarteak irakasleentzat, prezioa 100 eurokoa da. Eta ikastaroa amaitzean, ikasleari ikastaroaren ziurtagiria emango zaio.

Ikastaroko *e-learning* ikaskuntzan oinarritzen da, «ikaslea ikaskuntza prozesuan laguntzeko baliabide ugariak eskaintzen dituelarik». **K**

IRAGARKI MERKEAK

Emakume euskalduna behar dugu adineko pertsona bat zaintzeko, esperientziaduna. Gizarte Segurantzak ordainduko zaio. **Deitu: 650 015 489**
Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**



Jaunartzeei dagokienez, larunbatean bi txandatan egingo dira.

Lehen Jaunartzeak egingo dira larunbatean, eta bataioak igandean

Jaunartzeak 11:00etan eta 12:30etan izango dira, eta igandeko bataioak 12:30etan; sakramentu guztiak San Joan Bataiatzailea parrokiaren egingo dira.

HERNANI ELIZA

Koronabirusa dela eta bertan behera gelditu ziren San Joan Bataiatzailea parrokiako sakramentuak. «Normaltasun» berri honetara egokitzen ahalegintzen ari dira bertan eta horregatik, konfinamenduagatik ospatu gabeko sakramentuak irailean izango dira.

Joan den larunbatean sendotza izan zen Hernaniko parrokiaren, eta asteburu honetan jaunartzeak eta bataioak izango dira San Joan Bataiatzailea parrokiaren. Lehen jaunartzei dagokienez, larunbatean izango dira eta bi txandatan egingo dira; lehenak 11:00etan eta bigarrenak 12:30etan. Bataioak, aldiz, igandean izango dira guztiak, goizeko 12:00etan.

Katekesian izen ematea, irailaren 14an edo 15ean

Aurtengo katekesian sartzeko izena emateko epea zabalik da. Aurten Lehen Hezkuntzako maila hasi edo 6 urte betetzen duten haurren gurasoei luzatu zaie deialdia. Interesa duenak San Joan parrokiako Elkano kaleko lokalean eman dezake izena, katekesian hasteko.

Datorren astelehenean edo asteartean egingo da katekesian izena emateko aukera. Arratsaldeko 17:00etatik 18:00etara bitartean jasoko dira izen emateak. **K**